

## **UDAL ORDENANTZA, EZINTASUNAK DITUZTEN PERTSONENTZAKO APARKALEKU-TXARTELAK ETA ERRESERBA BEREZIAK ARAUTZEN DITUENA.**

OHARRA: Dokumentu hau informazioa emateko helburuarekin eginda dago. Aldizkari ofizialetan argitaratutako testu onartuek bakarrik dute balio legala

**Onartuta:** Udalbatzak 2011/02/28an

**Argitaratuta:** Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 2011/06/28an

**Akats zuzenketa:** Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuta 2011/07/05ean

**Akats zuzenketa:** Gaztelerazko bertsioan Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuta 2011/09/28an

### **Aldaketak:**

#### **1. aldaketa:**

Onartuta: Udalbatzak 2025/02/24an

Argitaratuta: Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 2025/05/12an

### **AURKIBIDEA:**

|                                                                                                |    |
|------------------------------------------------------------------------------------------------|----|
| Arrazoien azalpena .....                                                                       | 3  |
| Atariko titulua .....                                                                          | 5  |
| I. Kapitula. Xedapen orokorrak .....                                                           | 5  |
| II. Kapitula. Aparkaleku-txartelen eta erreserba berezien titularrak .....                     | 5  |
| Lehen titulua. Aparkaleku-txartela lortu, erabili eta funtzionatzeko prozedura .....           | 6  |
| I. Kapitula. Aparkaleku-txartela lortu eta berritzeko prozedura .....                          | 6  |
| II. Kapitula. Aparkaleku-txartelen ezaugarriak, erabilera-baldintzak eta funtzionamendua ..... | 7  |
| Bigarren titulua. Aparkaleku-erreserba bereziak .....                                          | 8  |
| Hirugarren titulua. Zigor araubidea .....                                                      | 10 |
| I. Kapitula. Arau-haustekak, zigorrak, kautelazko neurriak eta erantzuleak .....               | 10 |
| II. Kapitula. Prozedura .....                                                                  | 13 |
| Xedapen gehigarria .....                                                                       | 13 |

|                                       |    |
|---------------------------------------|----|
| Aldi baterako lehenengo xedapena..... | 13 |
| Aldi baterako xedapena .....          | 13 |
| Xedapen indargabetzailea .....        | 13 |
| Azken xedapena. ....                  | 13 |

## ARRAZOIEN AZALPENA

Elbarriak gizarteratzeko apirilaren 7ko 13/1982 Legeak, 60. artikuluan, espresuki adierazten du Udalek neurri egokiak hartu behar dituztela erraztasunak emateko mugikortasun-arazo larriak dituzten elbarriei automobilak aparkatzeko orduan; izan ere, hori oso tresna egokia da kolektibo horren gizarteratzea eta lanbideratzea sustatzeko, zeren mugikortasun-arazo handiak izateagatik garraio publikoa erabiltzerik ez duten edo oso zaila duten pertsona askori esparru eta zerbitzu komunitarioetara sartzeko aukera ematen die; horrenbestez, esparru horietara ibilgailu partikularren bidez, modu autonomoan sar daitezke, eta ondoren, helmugan, txartelari esker aparkaleku-abantailak izan ditzakete.

Europako Batasuneko kontseiluak, 1998ko ekainaren 4an, Estatu kideentzako gomendio bat onartu zuen ezintasunak dituzten pertsonentzako aparkaleku-txartel bateratua ezartzeko, Estatu kideek elkarri onartzeko moduko eredu komunitario uniformearen arabera; horrenbestez, txartel horien titularrek txartelarekin lotutako aparkaleku-erraztasunak Europa osoan izan ditzakete, betiere pertsona jakin hori dagoen lurraldean indarrean dauden arau nazionalen arabera.

Gogoan izanik Kontseiluak eta Estatukideen Gobernuen Ordezkariek, 1996ko abenduaren 20an Kontseiluaren barnean bilduta, Ebazpen bat onartu zutela ezintasunak dituzten pertsonen aukera berdintasunari buruzkoa, eta ebazpen horren izpirituaren arabera, ezintasunak dituen pertsona orok izan behar du aukera lanbideratzea eta gizarteratzea ahalbidetuko duten neurri gehigarri eta zehatzez baliatzeko.

Ekintza positiborako neurri horien barnean, Euskadiko Irisgarritasuna Sustatzeko abenduaren 4ko 20/1997 Legearen bidez, botere publikoak behartuta daude aparkaleku batzuk erreserbatzera mugikortasun murriztua duten pertsonen ibilgailuek soil-soilik erabiltzeko.

Euskal Autonomia Erkidegoak, aurreikuspen horiek betetzeko, eta 5/1996 Legeak gizarte zerbitzuen plangintzaren eta arau-garapenaren alorretan emandako eskumenen arabera, abenduaren 5ean 256/2000 Dekretua eman zuen. Dekretu horren xedea, 1. artikuluan jasotzen duenaren arabera, honako hau da: “Ezintasunak dituzten pertsonentzako aparkaleku-txartel bakarra arautzea eta eredu komunitarioa egokitzea”; eta 6. artikuluan xedatutakoaren arabera, pertsona interesatua non bizi den, hango Udalari dagokio txartel hori ematea, betiere Dekretuak arautzen dituen prozeduraren eta ereduaren arabera.

Euskal Autonomia Erkidegoko Udalek emandako txartel hauek balioa izango dute: Euskal Autonomia Erkidegoko udalerrri guztietan, lurralde espainiar osoan eta Europako Batasuneko kide diren estatu guztietan, betiere udal komunitario bakoitzak ibilgailuen antolamendu eta zirkulazioaren alorrean ezarrita dituen baldintzetan.

Illo horretatik, abenduaren 19ko 19/2001 Legeak —martxoaren 2ko 339/1990 Errege Dekretu Legegilearen bidez onartuta zegoen Trafiko, Ibilgailuen Zirkulazio eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen Testu Artikulatua berritzen duenak—, Laugarren Xedapen Gehigarrian, honako hau jasotzen du:

“Udalerriek, arau honen 7. artikulua ematen dizkien eskumenak erabiliz eta apirilaren 7ko 13/1982 Legearen 60. artikulua agindutakoaren arabera, Lege hau indarrean jarri eta hurrengo urtean zehar hartu behar izango dituzte beharrezko dituzten neurriak mugikortasun arazo larriak dituzten pertsona ezinduentzako aparkaleku-txartelak emateko eta lege horretatik eratorritako eskubideak eraginkor izan daitezen, betiere Europako Batasuneko Kontseiluaren Gomendioa kontuan hartuta, ezintasunak dituzten pertsonentzako aparkaleku-txartela sortzearen ingurukoa, alegia.”

Bergarako Udalak, arazo honetaz aspaldidanik jabeturik, ezintasunak eta mugitzeko arazoak dituzten pertsoneri aparkaleku-txartelak ematen dizkie, arauz zehaztutako ereduaren arabera.

Era berean, mugikortasun murriztua duten pertsonen ibilgailuak soilik aparkatzeko aparkaleku-erreserbak ematen ari da udala; izan ere, arazoaz jabetuta dago, eta ezintasunen bat edo mugikortasun-arazoak dituzten herritarrei ahalik eta ongizate handiena emateko eta ziurtatzeko duen betebeharrak orokorra bere gain hartzen du.

Ordenantza honen helburua da ezintasunak eta mugikortasun-arazoak dituzten pertsonentzako aparkaleku txartelak eta erreserbak eman, erabili eta funtzionatzearen inguruko lege-eskakizunak betetzea, indarrean dagoen aipatutako legeriak Udal Administrazioari ematen dizkion ahalmenak erabiliz.

# **UDAL ORDENANTZA, EZINTASUNAK DITUZTEN PERTSONENTZAKO APARKALEKU-TXARTELAK ETA ERRESERBA BEREZIAK ARAUTZEN DITUENA**

## **ATARIKO TITULUA**

### **I. KAPITULUA. XEDAPEN OROKORRAK**

#### *1. artikulua. - Xedea*

Ordenantza honek, xedez, arautu egiten du ezintasunak dituzten pertsonentzako aparkaleku-txartela emateko prozedura eta hura erabiltzeko eta funtzionatzeko baldintzak.

Era berean, ordenantza honek arautu egiten du, ezintasunak eta mugikortasun murriztua duten pertsonen inguruan, horiek gidatutako edo garraiatzeko ibilgailuen aparkaleku-erreserba bereziak sortu eta emateko prozedura, eta aparkalekuok erabiltzeko eta funtzionatzeko baldintzak.

#### *2. artikulua.- Lurralde-esparrua*

Autonomia Erkidegoko Udalek emandako txartel hauek —256/2000 Dekretuaren 6. artikuluan aurreikusten den prozedurari jarraituz— Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldean balio dute, baina horretaz gain Europako Batasuneko kide diren estatu guztietan ere erabili ahal izango dira, betiere udal komunitario bakoitzak ibilgailuen antolamenduaren eta zirkulazioaren alorrean ezarrita dituen baldintzetan.

Hala ere, Udalak honela iritziz gero, Bergarako udalerrirako balioa soilik duten aparkaleku-txartelak eman ahal izango dizkie ezintasunak dituzten pertsonak zaintzen dituzten hainbat zentrori (eguneko zentroari, zaharren egoitzari, eta abarri); emateko orduan, kasuan kasu zehaztuko dira txartel horiek erabiltzeko baldintzak.

### **II. KAPITULUA. APARKALEKU-TXARTELEN ETA ERRESERBA BEREZIEN TITULARRAK**

#### *3. artikulua. Aparkaleku-txartelen titularrak*

Bergarako Udalak ezinduentzat ematen dituen aparkaleku-txartel horietako baten titularra izateko, pertsona fisikoa izan behar da, Bergarako udalerrian errolatuta egon, urritasun fisiko edo psikiko larriren bat izan, eta indarreko legerian zehaztutako balorazio-irizpideen arabera Foru Aldundiko Balorazio eta Orientazio Unitateak emandako aldeko irizpena eskuratuta izan.

---

# LEHEN TITULUA. APARKALEKU-TXARTELA LORTU, ERABILI ETA FUNTZIONATZEKO PROZEDURA

## I. KAPITULUA. APARKALEKU-TXARTELA LORTU ETA BERRITZEKO PROZEDURA

### *4. artikulua. Aparkaleku-txartela emateko prozedura*

1.- Espedientea hasteko, inprimaki normalizatuaren bidezko eskaera egin beharko du pertsona interesatuak, edo haren legezko ordezkariak, edo — Foru Administrazioaren aurrean egin beharreko Jarduketetan Nortasuna eta Ordezkaritza Egiaztatzea arautzen duen 40/2006 Foru Dekretuak 6. artikuluan eta hurrengoetan aurreikusitako egoeretan— borondatezko ordezkariak.

Eskaerarekin batera honako dokumentazio hau aurkeztu beharko da derrigor:

- Eskatzailearen NANaren fotokopia, eta baita ordezkariarena ere, horrela badagokio.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Balorazio eta Orientazio Unitateak emandako irizpena, derrigorrezkoa eta loteslea.

3.- Eskaera Gizarte Zerbitzuek aztertuko dute eta ondoren proposamen bat egingo diote Alkatetzari edo Alkatetzak eskuordetza eman dion organoari.

Eskaeraren erabakia interesatuari berari jakinaraziko zaio gehienez ere 3 hilabeteko epean, aparkaleku txartelaren eskaera —beharrezko dokumentazio guztiarekin batera— egiten denetik kontatzen hasita. Epe horretan ez bada berariazko erabakirik hartzen, eskaera ez dela onartu ulertu beharko da.

4.- Udalak egokitzen har ditzakeen gailuak sartu ahal izango dizkio ematen duen txartelari, jatorrizkoa dela bermatzeko eta legez kanpoko manipulazio edo kopiak baztertzeko.

5.- Udaltzaingoak egingo ditu aparkaleku-txartelen erabileraren zaintza eta kontrol lanak.

### *5. artikulua. Aparkaleku-txartela berritzeko eta ale bikoiztuak emateko prozedura.*

1.- 5 urtean behin berritu beharko da txartela; hala ere, titularraren ezintasunaren balorazioan aldaketak gertatuz gero, txartelak bere indarraldi-epea gal dezake; eta baita balorazio-unitateek egindako irizpenen kasuan ere, baldin eta irizpenean txartela berrikusteko zehaztu den muga-data bost urtetik beherakoa bada; azken kasu honetan, irizpenean zehaztutako data hori hartuko da kontuan.

2.- Aparkaleku-txartela berritzeko, aurrekoaren indarraldia bukatutakoan txartel berria eduki ahal izateko, txartelean agertzen den iraungitze-data baino gutxienez hiru hilabete lehenago egin beharko du eskaera interesatuak. Ondoren, dagozkion egiaztapenak egindakoan, txartel berri bat emango zaio, aurrekoak zuen zenbaki berberarekin. Txartel berria jaso ahal izateko, iraungitako txartela entregatu beharko da derrigor.

3.- Txartela lapurtu edo galtzeagatik ale bikoiztua eskuratu ahal izateko, dagozkion salaketaren justifikazioa aurkeztu beharko du interesatuak. Ale bikoitza txartela hondatu delako eskatzen bada, hondatutako txartela aurkeztu beharko da. Honelako kasuetan, guzti guztietan, Udalak emango duen txartel berriak aurrekoaren zenbaki berbera eta iraungitze-data berbera izango du; eta tasa bat ordaindu beharko da, dagozkion ordenantza fiskalak horrela jasotzen badu.

4.- Gipuzkoako Foru Aldundiko departamentu eskudunak emandako irizpenak behin betirako izaera badu, txartela berritzeko prozedura administratiboa interesatuaren eskariz hasiko da beste irizpen baten beharrik gabe, Udalak ez badu behintzat irizpena berariaz eskatzen.

5.- Udaltzaingoak egindako ikuskapen lanen ondorioz susmatzen baldin bada ez datozela bat aparkaleku-txartelaren titularraren ezintasun-maila eta txartela emateko oinarritzat hartu dena, beste irizpen bat eskatuko zaio Gipuzkoako Foru Aldundian eskumena duen Departamentuari.

## II. KAPITULUA. APARKALEKU-TXARTELEN EZAUGARRIAK, ERABILERA-BALDINTZAK ETA FUNTZIONAMENDUA

### *6. artikulua. Aparkaleku-txartelaren ezaugarriak*

Txartelaren ezaugarriak zehaztuta daude abenduaren 5eko 256/2000 Dekretuaren I. Eranskinean. Dekretu horren bitartez ezintasunak dituzten pertsonentzako aparkaleku-txartela arautu da eta eredu komunitario bateratura egokitu da.

Dekretu horren 5. artikuluan xedatutakoaren arabera, Ezintasunak dituzten Pertsonentzako Aparkaleku Txartela doan egin eta emango dio Udalari gizarte zerbitzuen alorrean eskumena duen Eusko Jaurlaritzako Sailak.

### *7. artikulua. Erabilera-baldintzak*

1.- Txartela pertsonala eta besterenezina izango da, ezintasuna duen pertsona izango da txartel-titularra, eta bakarrik erabili ahal izango da titularrak berak bidaiaitzen duenean —gidari gisa zein bidaiari gisa— bere jabetzako ibilgailuetan edo bera garraiatzeko erabil daitekeen beste edozein ibilgailutan.

2.- Aparkaleku-txartela, jatorrizkoa betiere, aurreko parabrisean jarriko da, txartelaren gainaldea (txartel-zenbakia eta iraungitze-data agertzen den aldea) ibilgailuaren kanpotik irakurtzeko moduan. Eta agerian utziko da kontrolatu ahal izateko, eskumena duten agintaritza-agenteei behar izango balute ere.

Inolaz ere ezin izango da erabili aparkaleku-txartelen kopiarik.

Aparkaleku-txartelen kopiak erabiltzeak ez du inolako balio ofizialik izango; horrenbestez, ulertuko da fotokopia horiek dituen ibilgailuak ez duela beharreko baimenik eta, beraz, indarrean dagoen legeriaren arabera jardungo da haren aurka.

3.- Seinaleztatutako lekuetan aparkatzeko balio izango du, eta baita aparkatzea debekatua dagoen lekuetan ere behar-beharrezkoa duten denborarako, honako salbuespen hauekin:

Oinezkoentzako eremuak, nasak edo espaloiak eta oinezkoentzako pasabideak.

Gelditzea debekatuta dagoen lekuak.

Ibi-pasabideak edo larrialdiko irtenbideak oztopatuko lituzketen lekuak

Zirkulazio-lerroak murriztuko lituzketen esparrua.

Ordutegi mugatua duten aparkalekuetan aparkatzeari dagokionean, berriz, aparkamendua arautzeko udal zerbitzuari buruzko Ordenantzak xedatutakoa bete beharko da.

4.- Aurreko ordenantza horrek aparkaleku-txartelaren titularrentzat zehazten dituen eskubideak bakarrik onartuko dira baldin eta txartela Europako Batasuneko eredu honetara egokitzen bada: Europako Batasuneko Kontseiluak Gomendaturiko 98/376/CE eredua, 1998ko ekainaren 4koa.

5.- Aparkaleku-txartelaren titularraren betebeharra izango da txartela garbi eta egoera egokian eduki eta zaintzea, txartelean idatzitako datu espezifikoak uneoro ikusi ahal izateko moduan.

6. Txartelak ez du baliorik izango baldin eta oinarritzko daturen bat irakurri ezin bada.

#### *8. artikulua. Funtzionamendua*

1.- Aparkaleku-txartelaren titularrek Udalari jakinarazi beharko diote, gehienez ere hamabost eguneko epean, hura emateko arrazoi izan ziren baldintzak aldatzen badira, edo txartela galdu, lapurtu edo hondatzen bada.

Era berean, aparkaleku-txartelaren titularraren heriotza gertatuz gero, epe horren barruan titularraren sendikoek edo ordezkariak jakinarazi beharko dute, eta txartela entregatu.

2.- Txartela galdu, lapurtu edo hondatzen bada, txartelaren titularrei emandako eskubideak ezin izango dira erabili berria egiten ez den bitartean.

Txartel berri bat eskatzeko orduan, Ordenantza honetako 5-3 artikuluan xedatutakoari jarraitu beharko zaio.

3.- Iraungitako txartel oro baliogabea da ondorio guztietarako.

### **BIGARREN TITULUA. APARKALEKU-ERRESERBA BEREZIAK.**

*9. artikulua. Ezintasunak dituzten pertsonentzako aparkaleku-erreserba bereziak sortzea eta mota ezberdinak.*

Erabilera orokorreko erreserbak

1.- Hiri inguruko irisgarritasuna errazteko, Udalak aparkaleku-plaza batzuk sortuko ditu mugikortasun murriztua duten pertsonak garraiatzen dituzten ibilgailuek soilik erabiltzeko, betiere pertsona horiek Aparkaleku Txartelaren titularrak direnean; hori guztia Irisgarritasuna Sustatzeko Legeari jarraituz eta lege hori garatzeko hiri inguruaren, espazio publikoen, eraikinen eta informazio eta komunikazio sistemen irisgarritasun-baldintzei buruzko araudiaren arabera egin behar da.

2.- Plaza horiek oinezkoentzako ibilbideetatik eta hiriko eraikin eta zerbitzu publikoen sarbideetatik gertu sortuko dira.

Erabilera izenduneko erreserbak

Udalak, honetarako arrazoiak daudenean eta modu diskrezionalean, ondoko aparkaleku-plaza erreserbatuen mota hauek sortu ahal izango ditu, betiere izendunak eta behar bezala seinaleztatuak, aparkaleku-txartelen titularrak diren eta mugikortasun murriztua duten pertsona ezinduen ibilgailuetarako:

a).- PERTSONALIZATUAK. Ezintasuna duen pertsona horrek soilik aparkatzeko seinalatutako plazak dira.

Plaza eman ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko dira:

- Ibilgailuaren titularra izateaz gain, horren gidaria ere izatea.
- Gida-baimena indarrean izatea.

- Gipuzkoako Foru Aldundiko Balorazio eta Orientazio Unitateak emandako irizpenean, mugikortasun-baremoan (BLAM) % 75eko portzentaia edo handiagoa aitortua izatea.
- Familia-unitateak ez izatea irisgarritasun-baldintza egokiak dituen garaje-plaza edo aparkaleku-plaza bateko erabilera pribatiborik.
- Bergaran erroldatuta egotea eta benetan bertan bizi izatea.
- Erreserba lantokitik gertu eskatzen badu, benetan erreserba eskatzen den tokian lan egiten duela egiaztatzea.
- Ibilgailua Bergaran helbideratuta egotea, edo bestela, enpresa-ibilgailua dela eta eskatzailearen erabilera eskusiborako dela ziurtatzea.

Pertsona bakoitzeko plaza pertsonalizatu bakar bat emango da. Ahaleginak egingo dira eskatutako plaza ahalik eta gertuen egon dadin helbidetik edo lantokitik —eskatzailearen interesaren arabera—.

#### **b).- EZINTASUNAK DITUZTEN PERTSONAK ERAMATEKO ZERBITZUETARAKO PLAZAK:**

Berariaz ezintasunak dituzten pertsonak eraman eta ekartzen ibiltzen diren ibilgailuentzako aparkaleku plaza sortu ahal izango dira, horien harrera zentroetan (eguneko zentroak, 3. adinekoen egoitzak, eta abar). Erreserba ematea erabakiz gero, emateko ebazpen horretan bertan xedatuko dira erreserba emateko baldintzak.

#### *10. artikulua. Erabilera izenduneko erreserba bereziak emateko prozedura*

1.- Erabilera izenduneko erreserba berezi pertsonalizatu baten espedientea hasteko, inprimaki normalizatuaren bidezko eskaera bat aurkeztu beharko du pertsona interesatuak, edo haren legezko ordezkariak, edo — Foru Administrazioaren aurrean egin beharreko Jarduketetan Nortasuna eta Ordezkaritza Egiaztatzea arautzen duen 40/2006 Foru Dekretuak 6. artikuluan eta hurrengoetan aurreikusitako egoeretan— borondatezko ordezkariak.

Eskaerarekin batera honako dokumentazio hau aurkeztu beharko da:

- Eskatzailearen NAN agiriaren fotokopia, eta baita ordezkariarena ere, horrela badagokio.
- Balorazio eta Orientazio Unitateak emandako irizpen derrigorrezkoa eta loteslea.
- Ibilgailuaren zirkulazioko baimena —bertan jasota azaldu beharko da ibilgailua pertsona interesatuaren izenean dagoela erregistratuta—, eta pertsona interesatuaren gida-baimena.
- Pertsona horrek lan egiten dueneko enpresaren ziurtagiria; bertan, kontratuaren ezaugarriak azaldu beharko dira.

2.- Erreserba berezi hauek emateko, era fidagarrian egiaztatuko da ezintasuna duen pertsona Bergaran erroldatuta dagoela, eta jakinarazitako helbide horretan benetan bizi dela edo erreserba eskatu duen tokian egiten duela lan; egiaztatu egingo da, halaber, familia-unitateak ez daukala higiezinetan irisgarritasun-baldintza egokiak dituen garaje plazarik, edo, higiezinetan nahiz gertuan, erabilera pribatiboko aparkaleku-plazarik.

Ondorio hauetarako ulertuko da familia-unitatea dela ezintasuna duen pertsonarekin batera erroldatuta dauden pertsona guztiak.

3.- Eskaera Gizarte Zerbitzuek aztertuko dute eta ondoren proposamen bat egingo diote Alkatetzari edo Alkatetzak eskuordetza eman dion organoari.

Eskaeraren gaineko ebazpena interesatuari jakinaraziko zaio gehienez ere 3 hilabeteko epean, betiere erabilera izenduneko erreserba berezira eskaria eta beharrezko dokumentazio guztia aurkeztu den egunetik kontatzen hasita. Epe horretan ez bada berariazko erabakirik hartzen, eskaera ez dela onartu ulertu beharko da.

Eskumena duen udal zerbitzuari ere jakinaraziko zaio ebazpena, dagokion txostena egin dezan ezintasuna duen pertsonaren helbidetik hurbilen dagoen eremuan egokien ikusten den lekuaren inguruan —irisgarritasun irizpideak kontuan harturik, besteak beste—. Nolanahi ere, aparkaleku-

plaza bat zehatz kokatzeko, Udalak ezintasuna duen pertsonaren beharrak aztertuko ditu, hirigintza-eskakizunekin eta trafiko beharrekin bat eginik.

Txosten horri jarraituz, Udalak plaza seinaleztatuko du. Seinaleztapen horren kostua Udalaren kontu izango da. Ondorengo aldaketak, ordea, erreserbaren titularraren kontu izango dira.

4.- Erreserba Alkatetzaren Ebazpenaren bidez emango da bost urterako gehienez; eta berritu egin beharko da epe hori bukatzen denean, erreserbaren titularraren elbarritasun-maila aldatzen denean edo/eta gidabaimena iraungitzen edo baliogabetzen denean.

Berritzeko eskaerak erreserbaren iraungitze-data baino gutxienez hiru hilabete lehenago aurkeztu behar dira.

Erreserba ematea arrazoitu zuten baldintzetan edozein aldaketa gertatuz gero, erreserbaren titularrek Udalari jakinarazi beharko diote gehienez ere hamabost eguneko epean.

5.- Udalak datu-base batean jasoko ditu aparkaleku erreserba bereziak eman edo gaitzesten, berritu edo baliogabetzen duten ebazpenak; eta datu-base horren edukia datu pertsonalen tratamenduaren alorrean indarrean dagoen araudiaren arabera babestuko da.

#### *11. artikulua. Erreserba berezien erabilerarako eta funtzionamendurako baldintzak*

1.- Erreserba bereziak erabilera orokorrekoak badira, horiek ematerakoan zuten helburua ziurtatu beharko du Udalak; beraz, erreserba horiek ezin izango dituzte soilik ibilgailu jakin batzuek erabili, hau da, ezin izango da mugatu aparkaleku-txartelen gainontzeko titularrek bertan aparkatzeko duten eskubidea.

Aparkatzeko gehienezko denbora mugatu ahal izango du Udalak, aparkamendua arautzeko zerbitzua arautzen duen ordenantzen bitartez.

2.- Bide publikoan erreserbatutako aparkaleku-plazak udal zerbitzuek seinalatuko dituzte, nazioarteko irisgarritasun-ikurrarekin, bai horizontalean bai bertikalean.

Gainera, erabilera izenduneko erreserba bereziak eta pertsonalizatuak ibilgailuaren matrikula-zenbakiaz seinalatuko dira.

Erreserba horien diseinu eta trazaturako zehaztapen teknikoek bete egin beharko dute honako araudian, indarrean dagoenean, zehaztutakoa: hiri-inguru, espazio publiko, eraikuntza eta informazio- eta komunikazio-sistemen irisgarritasun-baldintzen inguruko arau teknikoak onartzen dituen araudian, hain zuzen ere.

3.- Udalak edozein erreserba-mota kentzeko edo beste leku batera eramateko ahalmena izango du, behar ez bezala erabiltzen badira edo beste behar batzuk badaude —obrak edo hiri trafikoaren bideratze egokia, esate baterako—, aurreko kontzesioak eta haren baldintzek interesatuaren aldeko eskubiderik sortu gabe.

### **III. TITULUA. ZIGOR ARAUBIDEA**

#### **I. KAPITULUA. ARAU-HAUSTEAK, ZIGORRAK, KAUTELAZKO NEURRIAK ETA ERANTZULEAK.**

##### *12. artikulua. Arau-hausteak*

1.- Arau-hauste administratiboa izango da Ordenantza honek jasotzen dituen xedapenak ez betetzea eta bertan ezartzen diren debekuak urratzea.

2.- Aplikatu beharreko berariazko araudi sektorialik izan ezean, Alkatetza-Lehendakaritzak edo hark eskuordetutako Organoak zigortuko ditu Ordenantza honetan xedatutakoaren arau-hausteak, Titulu honetan zehaztutakoaren arabera, legediak ezarritako mugen barnean, eta kasu bakoitzean egon daitezkeen erantzukizun penalei kalterik egin gabe.

3.- Ibilgailuak aparkatzeko araubidearen inguruko arau-hausteak zigortu ahal izateko, honako hauek jarraitu dira: martxoaren 2ko 339/1990 Errege Dekretu Legegilea —Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen Testu Artikulatua onartzen duena—; azaroaren 21eko 1428/2003 Errege Dekretua —Zirkulazioari buruzko Araudi Orokorra onartzen duena—; eta trafikoko arau-hausteak arautzen dituen udal-ordenantza, eta aparkamendua arautzeko udal zerbitzuaren ordenantza, edo bestela horien ordezt dagoen araudia.

Aurreko araudian oinarrituta, ezintasunak dituzten pertsonentzako erreserbetan baimendu gabeko ibilgailuak aparkatuz gero, dagokion zigorra jarriko da, behar ez den lekuan aparkatzeagatik, eta ibilgailua garabiak eramango du.

Ondorio horretarako, baimendu gabeko ibilgailutzat hartuko da bai aparkaleku-txartelik ez duena, bai aparkaleku-txartel baliogabea duena.

### *13. artikulua. Arau-hauste motak*

1.- Arau-hausteak honela sailkatuko dira: arinak, larriak eta oso larriak.

2.- Arau-hauste arinak dira Ordenantza honetan jasotako arauen aurka egindakoak, betiere hurrengo ataletan larri edo oso larri gisa kalifikatzen ez direnean.

3.- Arau-hauste larriak dira Ordenantza honetan horrela tipifikatuta dauden jokabideak edo portaerak, honako hauei buruzkoak:

a).- Ez jakinaraztea Bergarako Udaleko gizarte zerbitzuei helbidea aldatu egin duela (nahiz udalerriaren barruan, nahiz udalerritik kanpo), edo titularraren egoera pertsonalean aldaketa egon dela, betiere aldaketa horrek mugitzeko gaitasunean hobekuntza dakarrenean.

b).- Ibilgailua iristerakoan edo irteterakoan titularra ez dagoenean erabiltzea aparkaleku-txartela.

c).- Aparkaleku-txartelen kopiak modu okerrean erabiltzea.

d).- Jatorrizko aparkaleku-txartelaren kopiak erabiltzea.

e).- Udaltzaingoko agenteek txartelen eta aparkaleku-erreserben kontrol eta zaintzarako beharrezko egiaztapenak egin behar dituztenean, ez laguntzea edo/eta horiek egiten ez uztea.

f).- Iraungitako txartela erabiltzea.

g).- Hiru arau-hauste arin egitea urtebeteko epean.

4.- Oso arau-hauste larriak dira honako jokabide edo portaera hauek:

a).- Aparkaleku-txartela lagatzea horren titularra garraiatzen ez duen beste ibilgailu baten erabiltzaile edo jabeari.

b).- Txartel manipulatu, faltsutua, ezeztatua edo hildako pertsona batena erabiltzea.

---

c).- Datu faltsuak edo okerrak nahita ematea aparkalekuen edo erreserba berezien txartelak eskatzerakoan, txartela emateko orduan funtsezko datuak izan direnean.

Arau-hauste honek berekin eramango du txartel edo aparkaleku erreserbatuaren kautelazko etenaldia, horien eskaera-prozesu osoa berrikusi arte.

d).- Ordenantza honen aurkako arau-hausteengatik balioa etenda duten txartelak erabiltzea.

e).- Aparkaleku-txartela ez entregatzea, txartela eteteko zigor irmoa bete behar denean.

g).- Hiru arau-hauste larri egitea urtebeteko epean.

#### *14. artikulua.- Zigorrak.*

1.- Zigorrak ezartzerakoan, arau-haustea ekarri duen ekintzaren larritasunaren arabera izan beharko da aplikatutako zigorra. Horrenbestez, aplikatu beharreko zigorraren maila zehazteko, kontuan hartuko da bereziki nahita edo behin baino gehiagotan egin duen, eragindako kalteen izaera zein den eta berrerortzerik izan den, hau da, urte batean izaera bereko arau-hauste bat baino gehiago izan duen, betiere erabaki irmoaren bidez halaxe adierazi denean.

2.- Arau-hauste arinengatik 90 euro arteko isuna jarriko da, arau-hauste larriengatik 91tik 300 eurora arteko isuna jarriko da, eta oso arau-hauste larriengatik 301etik 600 eurora arteko isuna jarriko da.

3.- Arau-hauste larrien kasuan, gainera, ezintasunak dituzten pertsonentzako aparkaleku-txartela eta —horrela behar badu— aparkaleku-erreserba eteteko zigorra ezarri ahal izango da, gutxienez hiru hilabeterako eta gehienez sei hilabeteraino.

4.- Arau-hauste oso larrien kasuan, ezintasunak dituzten pertsonentzako aparkaleku-txartela eta —hala behar badu— aparkaleku-erreserba eteteko zigorra ezarri ahal izango da, gutxienez sei hilabeterako eta gehienez urtebeteraino.

5.- Arau-hauste oso larrietan berreroriz gero, aurrekoetz gain, ezintasunak dituzten pertsonentzako aparkaleku-txartela eta —hala behar badu— aparkaleku-erreserba eteteko zigorra ezarri ahal izango da, gutxienez urte baterako, eta gerta liteke gehiago berritu ezin izatea.

6.- Ordenantza honen aurkako arau-hausteengatik txartela eteteko zigor irmoa bete behar denean, ezintasunak dituzten pertsonentzako aparkaleku-txartela entregatu nahi ez badu, horren eraginez gerta liteke gehiago berritu ezin izatea.

#### *15. artikulua.- Kautelazko neurriak*

Trafikoa zaintzeko ardura duten agintari-agenteeek egiaztatu eta berehala konfiskatu ahal izango dituzte faltsututako txartelak, jatorrizkoen fotokopiak, manipulatuak, baliogabetuak, etenak, iraungiak edo hilik dauden titularrenak.

Egindako arau-haustearen frogatzat hartuko dira horiek, eta tramitatuko den espediente administratibo edo judizialari batuko zaizkio.

#### *16. artikulua. Erantzuleak*

Ordenantza honetan xedatutakoaren arabera arau-hausteen erantzukizuna, zuzenean, aparkaleku-txartelaren edo erabilera izenduneko erreserba bereziaren titularrarena izango da.

## II. KAPITULUA. PROZEDURA

### *17. artikulua. Zigor-prozedura*

Zigorak ezartzeko orduan, arlo honetan zigortzeko ahalmena gauzatzeko ezarrita dagoen legezko edo erregelamenduzko prozeduraren arabera jokatu da.

## **XEDAPEN GEHIGARRIA**

Udalerri honetan, mugikortasun murriztua dutenentzako ibilgailuak aparkatzeko, ordenantza honek ibilgailu horien titularrei aitortzen dizkien eskubideak honako hauek izango dituzte: nazio-lurraldean bizi diren herritar espainiarrek, eta Europar Batasuneko gainontzeko estatukideetakoek, baldin eta aparkatze-txartel baten jabe badira eta txartel hori baldin bada eredu komunitariokoa —hain zuzen ere, Europako Komunitateko estatukideei emandako Gomendioan, Europar Batasuneko Kontseiluak 1998ko ekainaren 4an onartu zuen Gomendioan, xedatutakoaren arabera— eta dagozkion agintari eskudunek emandakoa.

## **ALDI BATERAKO LEHENENGO XEDAPENA**

Gipuzkoako Foru Aldundiko Balorazio eta Orientazio Unitateak 1971/1999 Errege Dekretuan oinarrituta emandako irizpenean, mugikortasun-baremoan A, B edo C maila eta gutxienez 10 puntu aitortuta izanda, aitortutako aparkaleku-erreserbak errespetatu egingo dira, eta ez dute desgaitasuna aitortzeko beste prozedura bat egin beharko.

## **ALDI BATERAKO XEDAPENA**

Aparkaleku-erreserba berezia eskuratzeko udal araudian, behin betiko 1996ko martxoaren 4an onartu eta 1998ko abenduaren 16an aldatu zen horretan, 7. puntuan aurreikusten da aparkaleku-erreserbek urte bakoitzeko abenduaren 31ra arte izango dutela balioa; horrenbestez, orain arte emandako erreserbak 2011ko abenduaren 31ra arte errespetatuko dira.

Gaur egungo erreserba-titularrek, izenduneko erreserba pertsonalizatua eskuratzeko interesik izanez gero, epea bukatu baino gutxienez hiru hilabete lehenago eskaera aurkeztu beharko dute; ondoren, Udalak erreserba hori egingo du baldin eta ordenantza berri honetan xedatutako baldintzak betetzen badira, eta betiere ordenantzan zehaztutako baldintzetan.

## **XEDAPEN INDARGABETZAILEA**

Indargabetuta gelditzen da aparkaleku-erreserba berezia eskuratzeko udal araudia, Udalak 1996ko martxoaren 4an onartu, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 1996ko martxoaren 20an argitaratu, eta 1998ko abenduaren 16an aldatu zena.

Indargabetuta gelditzen da, halaber, aparkamendua arautzeko udal zerbitzuaren ordenantzaren 11. Artikuluaren c) puntua.

## **AZKEN XEDAPENA.**

Ordenantza hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta handik hamabost egunera jarriko da indarrean.